

GOI-MAILAKO HEZKUNTZAREN EUROPAKO ESPARRU

BATERANTZ

Goi-mailako hezkuntzaren ardura duten Europako ministroek

2001eko maiatzaren 19an Pragan egindako bileraren komunikatua

Boloniako Deklarazioa sinatu eta bi urte geroago, eta Sorbonako Deklaraziotik hiru urte igarota, goi-mailako irakaskuntzaren arduradun diren Europako ministroak, 32 kargudunek ordezkaturak, Pragan bildu ziren lortutako aurrerapena berrikusteko eta prozesuaren hurrengo urteetarako norabideak eta lehentasunak ezartzeko. 2010. urtea baino lehen Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua ezartzeko konpromisoa berretsi zuten ministroek. Bilera hori egiteko Praga aukeratu izana Europa osoa inplikatu nahiaren ikurra da, Europar Batasunaren zabalkuntza dela eta.

Ministroek pozez hartu zuten eta berrikusi egin zuten “Boloniako prozesuaren sakontzea” prozesua, jarraipen-taldeak agindutakoa, eta jakin zuten agintari gehienek, baita unibertsitateek eta goi-mailako hezkuntzaren beste erakunde batzuek, hartu eta praktikan jarri dituztela Boloniako deklarazioan finkatutako helburuak, goi-mailako irakaskuntzaren garapenerako oinarri gisa. Ministroek berretsi zuten mugikortasuna sustatzeko ahaleginek etengabeak behar dutela izan ikasleei, irakasleei, ikertzaileei eta administrazioari langileei ahalbidetzeko Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren aberastasunaz balia daitezela horrek inplikatzeko dituen balio demokratikoekin, kultura eta hizkuntzen aniztasunarekin eta goi-mailako hezkuntzaren sistemekin.

Martxoaren 29an eta 30ean Salamancan izandako goi-mailako hezkuntzaren Europako erakundearen konbentzioaren ondorioak kontuan izan zituzten ministroek, baita martxoaren 24an eta 25ean Goteborgen izandako Europako ikasleen konbentzioaren gomendioak, eta EUA Europako Unibertsitateen Elkarteak eta ESIB Europako Ikasleen Batasunak Boloniako prozesuan izandako inplikazio aktiboa balioetsi zuten. Gainera, prozesua sustatzeko beste ekimen ugari erreparatu zieten eta ekimen horiek guztiak positiboki balioetsi zituzten. Europako Batzordeak emandako laguntza konstruktiboa ere kontuan hartu zuten ministroek.

Ministroek ikusi zuten, unibertsitateko tituluen egiturari buruz deklarazioan gomendatutako jarduerak luze eta sakon jorratu dira herrialde gehienetan, eta kalitatea ziurtatzeko gaian lortutako aurrerapausoei erreparatu zieten, hezkuntza transnazionalak berekin dakartzen erronkei ekiteko lankidetzan aritzeko premia aitortuta. Hezkuntza-esparruan etengabeko hobekuntzak ikuspegi bat hartzeko premia ere onartu zuten.

BOLONIAKO PROZESUAREN SEI HELBURUEI BURUZKO EKINTZA BERRIAK

Boloniako Deklarazioak ezartzen duenez, ministroek adierazi zuten Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren eraikuntza eskakizuna dela Europako goi-mailako hezkuntzako erakundearen erakargarritasuna eta lehiakortasuna gehitzeko. Era berean, goi-mailako hezkuntzaren ideia jakin bat bultzatu zuten,

hots, goi-mailako hezkuntza ondasun publikotzat hartu beha dela, erantzukizun publiko bat dela eta izaten jarraituko duela (araudia eta abar), eta ikasleak goi-mailako hezkuntzaren komunitateko eskubide osoko kideak direla. Ikuspegi horretatik, honako ohar hauek egin zituzten ministroek burutu nahi den prozesuari dagokionez:

Erraz ezagutzeko eta konparatzeko moduko titulazioen sistema bat hartzea

Ministroek tinko eskatu zieten unibertsitateei eta goi-mailako hezkuntzako beste erakunde batzuei al bait gehien aprobetxatu beharra estatuko egungo legeria zein ikaskuntza-modulu, titulazioen eta beste ziurtapen batzuen aitorten profesionala errazteko Europako erremintak, herritarrek beren kualifikazioa, konpetentziak eta trebetasunak eraginkortasunez erabili ahal ditzaten Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan.

Ministroek egungo erakunde eta sareei –hala nola NARIC eta ENIC sareei– eskatu zieten maila instituzionalean, nazionalean eta europarrean aitorten sinplea, efizientea eta justua bultzatzea, azpian dagoen kalifikazio-aniztasuna islatuko duena.

Funtsean bi ziklo nagusitan oinarritutako sistema bat hartzea

Ministroek pozez nabarmendu zuten titulazioak egituratzeko helburua jorratu eta eztabaidatu dela, betiere bi ziklo nagusitan oinarrituta egoteko moduan, goi-mailako hezkuntza bi gradutan artikulatuta. Zenbait herrialdek hartu dute jada egitura hori, eta beste zenbait interes handiarekin ari dira aukera horren inguruan hausnartzen. Garrantzitsua da ikustea herrialde askotan “Bachelor” eta “Master” tituluak edo bi zikloko antzeko tituluak unibertsitateetan zein goi-mailako hezkuntzako beste erakunde batzuetan lor daitezkeela. Titulu bat lortzera eramaten duten programek orientazio eta profil ugari izan ditzakete – eta izatez izan beharko lituztekete– premia indibidualen, akademikoen eta lan-merkatuari lotutakoen aniztasunera egokitzeko, ziklo laburreko unibertsitateko diplomei buruzko Helsinikiko mintegian adierazi zen bezala (2011ko otsaila).

Kreditu-sistema baten ezarpena

Ministroek nabarmendu zuten, ikaskuntza- eta onespren-prozesuetan malgutasun handiagoa lortzeko, onespren-sistamarako patroi erkide batzuk hartu behar dira, ECTS kreditu-sistemak edo sistema horrekin bateragarria den beste sistema batek bermatutakoak, transferentzia- zein metaketa-funtzioak dituenak. Akordio horiek, kalitatea ziurtatzeko aho batez onetsitako sistemekin batera, ikasleei sarbidea erraztuko diete Europako lan-merkatura, eta Europako goi-mailako hezkuntzaren bateragarritasuna, erakargarritasuna eta lehiakortasuna gehituko dute. Kreditu-sistema horren erabilera orokortuak eta diploma-osagarriak aurrerabidea bultzatuko dute norabide horretan.

Mugikortasunaren sustapena

Ministroek berretsi zuten, funtsezkoa da ikasle, irakasle, ikertzaile eta administrazioko langileen mugikortasuna hobetzeko helburua, Boloniako Deklarazioan ezarritakoaren arabera.

Horrenbestez, berretsi egin zuten beren konpromisoa ikasle, irakasle, ikertzaile eta administrazioko langileen zirkulazio librerako oztopo guztiak desagerrarazteko, eta mugikortasunaren dimentsio soziala nabarmendu zuten.

Kontuan hartu zituzten, halaber, Europako Erkidegoaren programa guztiak eskaintzen dituzten mugikortasun-aukerak, baita esparru horretan lortutako aurrerabideak ere, hala nola 2000. urtean Nizako Europako Kontseiluak onartutako mugikortasunari buruzko ekintza-plana abiaraztea.

Europako lankidetzaren sustapena kalitatearen ziurtapenean

Kalitate-maila handiak eta European kualifikazioen konparazioa errazteko garaian kalitatea ziurtatzeko sistemek duten funtsezko papera aitortu zuten ministroek. Kalitatearen onspren- eta ziurtapen-sareen arteko lankidetzaz

estuago baten alde ere egin zuten, eta europar lankidetzaren estuago baten premia ere nabarmendu zuten, baita kalitatea ziurtatzeko sistema nazionalerako onarpena eta elkarrekiko konfiantza ere. Gainera, unibertsitateko eta goi-mailako hezkuntzako beste erakunde batzuk jardunbide egokien adibideak zabaltzera animatu zituzten, eta ebaluazioko, eta akreditazioko eta ziurtapenerako mekanismoak elkarri onartzeko markoak diseinatzera ere bai. Ministroek gonbidapena egin zuten unibertsitatei eta goi-mailako hezkuntzako beste erakunde batzuei, erakunde nazionaleri eta goi-mailako hezkuntzako goi-mailako hezkuntza kalitatea ziurtatzeko Europako sareari (ENQA), sare horretako herrialdeei dagozkien erakundeekin lankidetzan, erreferentziako marko esparru bat ezartzeko laguntza eta jardunbide egokiak zabaltzera.

Europar dimentsioen sustapena goi-mailako hezkuntzan

Goi-mailako hezkuntzaren europar dimentsioak eta tituludunen lan-munduratzeari are gehiago sendotzeko, ministroek deia egin zioten goi-mailako hezkuntzaren sektoreari maila guztietan ere eduki, orientazio eta antolamendu «europarrak» dituzten modulu, kurtso eta ikasketa-planen garapena gehitzeko, bereziki lankidetzaren erregimenean hainbat herrialdeetako erakundeek eskainitakoak, onetsitako titulu bateratu bat lortzera badaramate.

GAINERA HONAKO PUNTU HAUEK NABARMENDU ZITUZTEN MINISTROEK:

Bizitzan zeharreko ikaskuntza

Bizitzan zeharreko ikaskuntza Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruko funtsezko elementua da. Etorbizuneko Europan, jakintzaren gizarte batean eta ekonomia batean oinarritutakoan, bizitzan zeharreko ikaskuntza-estrategiak beharrezkoak dira lehiakortasunaren erronkei eta teknologia berrien erabilerari aurre egiteko, baita kohesio soziala, aukera-berdintasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko ere.

Goi-mailako hezkuntzako erakundeak eta ikasleak

Ministroek azpimarratu zuten beharrezkoa dela unibertsitateen eta goi-mailako hezkuntzako beste erakunde batzuen eta ikasleen beste erakunde batzuen parte-hartzea bazkide aditu, aktibo eta konstruktibo gisa Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua ezartzeko eta profilatzeke garaian. Zentzu horretan egiten den jardun orok harrera ona izango du. Erakundeek erakutsi dute oso garrantzitsua iruditzen zaiela Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua bateragarri eta eraginkor, dibertsifikatu eta moldagarri bat sortzea.

Ministroek adierazi zuten, halaber, kalitatea oinarritzeko azpiko baldintza dela Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak konfiantza, transzendentzia, mugikortasuna, bateragarritasuna eta erakargarritasuna izan dezan.

Gainera esker ona adierazi zuten kalitate akademikoa eta enplegu iraunkorrerako duen garrantzia bere lehentasunetako bat balitz gisa konbinatzen duten ikasketa-programak garatzeko egindako ekarpenengatik, eta goi-mailako hezkuntzako erakundeek paper proaktibo etengabea izan zezatela eskatu zuten.

Ministroek adierazi zuten ikasleek hezkuntza-erakundeen antolakuntzan eta definizioan parte hartu eta eragin beharko luketela unibertsitateetan eta goi-mailako hezkuntzako beste erakunde batzuetan, eta Boloniako prozesuan dimentsio soziala kontuan hartzeko premia –ikasleek gogorazitakoa– berretsi zuten.

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan erakargarritasuna sustatzea

Europako zein munduko beste toki batzuetako ikasleentzako goi-mailako hezkuntza europarraren erakargarritasuna gehitzearen garrantzia adierazteko garaian bat etorri ziren ministroak.

Goi-mailako hezkuntzaren titulazio europarrek mundu osoan izan beharreko irakargarritasuna eta konparagarritasuna sustatu egin behar da kualifikazioen

esparru erkidea garatuta, baita kalitatea ziurtatzeko eta akreditatzeko eta egiaztatze mekanismo koherenteen bidez, eta informazio-ahalegin handiago baten bidez ere.

Ministroek bereziki azpimarratu zuten goi-mailako hezkuntzaren eta ikerketaren kalitateak Europaren erakargarritasunaren eta lehiakortasunaren faktore erabakigarria izan behar dutela nazioartean. Era berean, bat etorri ziren adierazteko arreta handiagoa eskaini beharko litzaiekeela profil askotariko erakunde eta programekin egindako Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Eremuak dakartzan onurei, eta lankidetzaren handiagoa eskatu zuten Europako herrialdeen artean hezkuntza transnazionalak izan ditzakeen inplikazio eta ikuspegi posibleekiko.

ETENGABEKO JARRAIPENA

Boloniako Deklarazioan markatutako helburuen oinarriaren gainean lankidetzan jarraitzeko konpromisoa hartu zuten ministroek, kulturen, hizkuntzen eta sistema nazionalen antzekotasunetan lan eginez eta haien arteko aldeez baliatuta, baita posibilitate guztiak kontuan hartuta ere, Europako Erkidegoaren programenak zein gobernuarteko lankidetzarenak eta Europako unibertsitateekin eta goi-mailako hezkuntzako beste erakunde eta ikasleen beste erakunde batzuekin izaten ari diren elkarrizketarenak barne.

Boloniako Prozesura batzen diren kide berriei ongietorria egin zieten ministroek Sokrates eta Leonardo da Vinci o Tempus-Cards Europako Erkidegoko programetan parte hartzeko aukera irekita duten herrialdeen ordezkartzan ari ziren ministroen eskaeren ondoren. Kroaziaren, Zipreren eta Turkiaren eskaerak onartu ziren.

Beste jarraipen-bilera bat egitea erabaki zuten ministroek 2003ko bigarren erdian Berlinen, lortutako aurrerapausoak berrikusteko eta prozesuaren hurrengo etapetarako norabideak eta lehentasunak ezartzeko Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren mesedetan. Jarraipen-talde horretan jarraipen-egitura sendo bat izatearen eta prestaketa-talde bat izatearen premia berretsi zuten. Mandatari guztiak ordezkariak, parte-hartzaile berriak eta Europako Batzordea bildu behar ditu jarraipen-taldeak, eta une horretan EBn presidentzia duen estatu kidea izango da taldearen burua. Prestaketa-taldeak aurreko bileratako eta ondorengo bilerako ministro-bileretako herrialde anfitrioiak, EB bi estatu kide eta EBko kide ez diren bi estatu bildu behar ditu; jarraipen-taldeak aukeratuko ditu ordezkari horiek. Uneko EBko presidentziak eta Europar Batasunak ere prestaketa-taldeko kide izango dira, eta ministroen hurrengo bilera hartzen duen herrialdeko ordezkaria izango da taldeko burua.

Europako Unibertsitateen Elkarteak, EURASHE Goi-mailako Hezkuntzako Erakundearen Europako Elkarteak, Europako Elkartearen Batasunak eta Europako Kontseiluak zer dioten kontuan hartu beharko litzateke jarraipen-lanean.

Prozesua aurrerazteko, mintegiak egitera animatu zuten jarraipen-taldea ministroek, honako alderdi hauek jorratzeko: Kalitatea ziurtatzeko eta akreditatzeko arloan lankidetzaren, kredituak erabiltzeko Boloniako prozesuaren eta tituluak onesteko arazoak, titulu bateratuen garapena, dimentsio soziala, arreta bereziarekin mugikortasunerako oztopoei, Boloniako prozesuaren zabalkuntza, bizitzan zeharreko ikaskuntza eta ikasleen parte-hartzea.